



## **EITB TALDEAREN INFORMAZIO OROKORRA**

Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoak (IFZ: Q0191001G) eta haren menpe dauden sozietateek osatzen dute EITB Taldea:

Euskal Telebista, S.A.	IFZ: A48139232
Eusko Irratia, S.A.	IFZ: A48139224
Radio Vitoria, S.A.	IFZ: A01026699
EiTBnet, S.A.	IFZ: A95267936

### **ENPRESEN ALTA ETA EBALUAZIOA**

---

Edozein enpresak eman dezake alta EITB Taldearen datu-basean. Eskatzen diren datuekin behin fitxa beteta, datu-base horren parte izango da.

EiTB Taldeko Erosketa Sailak erosketa-eskaerak egin ahal izan ditzan, enpresek alta eman behar dute datu-base horren barruan. Aldi berean, enpresa bat homologatua izan dadin, gutxienez hornidura/obra/zerbitzu bat modu egokian bete beharko du.

EiTB Taldeak etengabeko ebaluazioak egiten ditu hornitzaileek urtean zehar egindako horniduren/obren/zerbitzuen gainean. Ebaluazio horiek ahalbidetzen dute hornitzaileak emandako horniduren/obren/zerbitzuen kalitateari buruz hautemate hobea izatea. Hautemate hori kontrakoa bada, Erosketa Saila enpresarekin harremanetan jarriko da, egoeraren berri eman eta zuzentzeari ekin diezaion.

Egoerak ez badu hobera egiten, hornitzaileari homologazioa kentzea eragin dezake.

### **ESKAINTZAK**

---

EiTB Taldera bidalitako eskaintza guztiek honako alderdi hauek jaso beharko dituzte:

- Aurrekontu xehatua artikuluen arabera, BEZik eta garraio-kosturik gabe (egon baleude)
- Emate-epea edota zerbitzua/obra hasteko epea
- Eskaintzaren indarraldia
- Ordainketa-baldintzak (60 eguneko arau orokorrari atxiki ezean)
- Bidalketa-baldintzak (hornitzailea izateagatik garraio-kostuak ordainduta egotearen arau orokorrari atxiki ezean) eta berorien zenbatekoa zein den adierazi.

### **EMATEAK**

---

Eskabidean/kontratuan adierazitako epe eta tokian egingo dira emateak, eta dagokion emate-agiria gaineratuko da honako informazio honekin:

- Emate-agiriaren zenbakia
- Enpresa hornitzailearen izena, telefonoa, helbide elektronikoa eta harremanetarako pertsona
- Erosketa-eskabidearen zenbakia
- Materialaren zerrenda eta deskribapena
- Hornitzailearen biltegitik salgaia noiz atera den adierazten duen irteera-data
- Eskatutako kopurua, bidalitakoa eta bidaltzeke dagoena (hala badagokio)



Emate-agiriak bistara egon beharko du, biltegian jasoko duen pertsonak ikusteko moduan, materiala datorren paketea ireki beharrik izan gabe. Salgaia beti egongo da Biltegiko Sailarentzat zuzenduta.

Ematean atzerapena egonez gero, mezu elektronikoko bat bidaliko da [compras@eitb.eus](mailto:compras@eitb.eus) helbidera, emate-epe berria eta atzerapenaren arrazoia jakinarazteko.

Ohiko emate-helbideak:

**EiTB, ETB Bilbao, Radio Euskadi eta EiTBnet**

Basurtuko kaputxinoak, 2  
48013 Bilbao (Bizkaia)

**Euskadi Irratia eta ETB Miramon**

Miramón Pasealekua, 172  
20014 Donostia (Gipuzkoa)

**Radio Vitoria**

Domingo Martínez Aragon, 5-7  
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Bilboren eta Miramonen kasuan, emateak biltegian egin behar dira.

## **FAKTURAZIOA**

---

Bidalketa-helbidea:

Faktura guztiak Ordainketa Sailera zuzendu behar dira, eta [ordainketak@eitb.eus](mailto:ordainketak@eitb.eus) helbide elektronikora edota honako posta-helbide honetara bidali:

Euskal Irrati Telebista (EiTB)  
Ordainketak  
Basurtuko kaputxinoak, 2  
48013 Bilbao (Bizkaia)

Fakturen informazioa:

Faktura orotan agertu behar diren datuak honako hauek dira:

- Fakturaren zenbakia
- Enpresaren izena eta IFZ
- Eskaera-zenbakia eta, hala badagokio, Zerbitzu juridikoko kontratuaren erreferentzia
- Materialaren zerrenda eta deskribapena, haren zenbateko garbia adieraziz (BEZa gabe), aplikatu beharreko BEZ mota, eta zenbatekoa BEZa barne.
- EiTB Taldeko zein sozietateri fakturatzen zaion:

Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa	IFZ: Q0191001G
Euskal Telebista, S.A.	IFZ: A48139232
Radio Vitoria, S.A.	IFZ: A01026699
Eusko Irratia, S.A.	IFZ: A48139224
EiTBnet, S.A.	IFZ: A95267936